

I. MatiaZaleak ideia lehiaketa

Aurten **MatiaZaleak**etik aurrera eraman ahal izateko ideia lehiaketa abiarazten dugu!

Lehiaketa hau Matia Fundazioko pertsona egoile, familiarteko, boluntario eta langileei zuzendua dago eta MatiaZale erregistraturik dauden pertsona eta elkarteei.

Xede berdina dugun, hau da, **adineko pertsonen eta aniztasun funtzionala dutenen ongizatea sustatzen** dugunok eta eragile garenon pertsona eta elkarte guztien artean eraikitakoa izan nahi du **MatiaZaleak**ek.

Partehartzeko bide bat da eta izaera berriztatzailea sustatzekoa.

NORK PARTEHARTU DEZAKE

Matia Fundazioko edozein pertsona egoile, familiarteko, boluntario eta langileei zuzendua dago, eta MatiaZale erregistraturik dauden pertsona eta elkarteei. Matiarekin kontaktua daukan eta MatiaZaleak barnean planteatu daitekeen proiektua bururatzen zaion edozein pertsona.

Pertsona edo taldeko gehienez ideia/proiektu bat aurkeztu daiteke.

LEHIAKETAREN HELBURUA

- Matia Fundazioan edo gipuzkoako gizarteari begira aurrera eraman daitezkeen proiektuak sortzea, non helburuak xedearekin bat egingo duen: **adineko pertsonen eta aniztasun funtzionala dutenen ongizatea**.
- Aukeratutako proiektuak **MatiaZaleaken ekimen edo ekintza** bezala jarriko lirateke eta bideak bilatzen hasi aurrera eramateko.

EPEAK ETA NOLA PARTEHARTU

Abiarazten dugunetik eta 2018ko Abuztuaren 31arte aurkeztu daiteke. Betebeharrak hurrengo atalean ikus daitezke (“proiektuen aukeraketa eta sariak”).

Eman beharreko datuak aurkezterakoan hauek dira:

1. Baimena osatua eta sinatuta, oinarri hauen 4. orrialdean dago. Hau gutun-azal batean eta kanpoaldean proiektuaren izenburua
2. Beste gutun-azal batean, kanpoan izenburua jarri eta barruan 5. orrialdean dagoen modelo osaturik: zertan datza, zein balore dituen, helburuak, zergatik den esanguratsua adineko pertsonentzat edo aniztasun funtzionala dutenentzat edo gizartearentzat.... Luzapena librea da, baina gehienez 3 orrialdekoa.

Nola aurkeztu? Bide ezberdinak:

1. Posta elektronikoz bidez: honako helbidera bidali bi dokumentuak osaturik (4. eta 5. orrialdekoak) info@matiazaleak.net
2. Aurrez-aurre Matia Fundazioeko zentro eta zerbitzuetan.



PROIEKTUEN AUKERAKETA ETA SARIAK

Epea bukatutakoan, epaimahai batek ekimenak aztertuko ditu.

Betebehar nagusia Matia Fundazioaren xedearekin bat egitea da: **adineko pertsonen eta aniztasun funtzionala dutenen ongizatea.**

Positiboki baloratuak eta puntuazioa jasoko dute ondorengo irizpideak betetzen dituztenak:

- Onurak izango dituzten pertsona kopurua: gehienez 3 puntu.
- Egingarria eta bideragarria izatea: gehienez 3 puntu.
- Originala izatea: gehienez puntu 1.
- Elkartasuna eta kolaborazioak proposatzen dituenak: gehienez 3 puntu.
- Partehartzea sustatzen duena: gehienez 3 puntu.
- Belaunaldi arteko erlazioak sustatzen dituenak: gehienez 2 puntu.
- Denboran edo lekuan errepikatu daitekeena izatea: gehienez puntu 1.

Ebazpen epea: 2018ko Irailaren 30a

Sariak lehen 6 irabazleentzat honako hauek izango dira:

- Bakoitzak La Perla Talasoterapiarako zirkuitorako 2 sarrera eramango ditu.
- Lehen 3 proiektuak MatiaZaleak webgunean jarriko dira eta honako diruarekin hornituko dira:
 - 500€ lehen saria
 - 300€ bigarrena
 - 200€ hirugarrena
- Webgunean proiektuaren autore bezala aitortza eta partehartzeko aukera.

ZABALTZEA, ESKUBIDEEN LAGAPENA ETA PARTEHARTAIEN MATIAZALE AITORTZA

Proiektu edo ideia bat entregatzerakoan, oinarriak onartzen dituzu.

Lehiaketan parte hartzen, onartzen duzu proiektu edo ideia originala, norberarena eta banakako lana dela. Pertsona bat baina gehiagoren ideia baldin bada, datu pertsonaletan jakinarazi, guztien datuak eskuratuaz.

Aurkeztutako ideiak MatiaZaleak ideien datu basearen parte izango dira.

Lehiaketan parte hartzeak Matia Fundazioari aurkeztutako obren lagapena ematen du erreproduktzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketan, Jabetza Intelektualaren legediaren arabera, edozein komunikabide, irabazi asmorik gabe eta legediak onartzen duen epe luzeenean.

MATIA Zaleak

Indarrean dagoen 2016ko Apirilaren 27ko Europar Legebiltzar eta Batzordeko 2016/679 (EB) Araudiak dioen bezala, jakinarazten dizuegu eskainitako datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa...) proiektu edo ideia entregatzean, datu base batean sartuko direla, eta honen helburu bakarra lehiaketa honetako kudeaketa burutzea izango da.



Era berean, datu pertsonalak MatiaZale datu basean sartuko dira, MatiaZale aitortza eginez eta horrela puntualki hau bezelako ekintza eta ekimenei buruzko informazioa jasoko duelarik, MatiaZale proiektuaren barnean ematen diren berriak. Ez nahi izanez gero, jakinarazi horrela idatziz info@matiazaleak.net posta elektronikora.

Data: 2018ko Uztailak 10

PARTEHARTZE BAIMENA MatiaZaleak I. Ideia Lehiaketa



PARTEHARTZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Udalerria:

Posta kodea:

Posta elektronikoa:

Telefonoa:

PROIEKTUAREN IZENBURUA:

MATIAKO ZEIN ZENTROTIK DATORREN EDO NORAKO
DAGOEN PENTSATUTA (zehaztu ahal bada):

HAU GUTUN-AZAL BATEAN

Eta kanpoan, proiektuaren izenburua

Data:

Sinadura:

* Baimen honen sinadurarekin lehiaketako oinarriak onartzen dituzu.
Indarrean dagoen 2016ko Apirilaren 27ko Europar Legebiltzar eta Batzordeko
2016/679 (EB) Araudiak dioen bezala, gogoratzen dizugu zuen datu pertsonalak Matia
Fundazioaren datu base batean sartuko direla, eta honen helburua lehiaketako
partehartzaileen datuak kudeatzea dela. Sartze, zuzentze, ezeztatze edo aurkako eskubidea
burutu nahi izanez gero, honen bitartez: sau@matiafundazioa.eus

PROIEKTUATEN EDUKIA

Matiako zein zentroetarako pentsatuta dagoen (zehaztu ahal bada soilik):

Proiektuaren izenburua:

Proiektuaren garapena, zertan datza:

- Helburuak:
- Nori zuzendua:
- Edukia: gaia, garapena, partehartzen duten elkartek, epeak zertan datza azaldu, zein balore ematen dituen, ze egoerari erantzuten dion, helburuak, zergatik den esanguratsua adineko pertsonentzat edo aniztasun funtzionala dutenentzat, edo gizartearentzat.... Luzapena librea da, baina gehienez 3 orrialdekoa

Kolaborazio posibleak:

Gutxi gora-beherako aurrekontua:

Data eta sinadura: